

NASUVINSA: ALOKAIRUEN POLTSARAKO ETXEBIZITZA ERABILIEN BILAKETAREN KUDEATZAILEA.

INFORMAZIOA aurretiko hitzorduaren bidez.

- Telefono bidez
- Emailez
- Aurrez aurre
- Aurretiko hitzordua
- 848 42 06 00

ESKUALDEAK (etxebizitzaren onarpena)

- Nafarroako zeinahi udalerritan.

* Edonola ere, NASUVINSAk etxebizitza bat Alokairuen Poltsan sar dadila onartzeko, beharrezkoa izanen da etxebizitza hori dagoen udalerrian gutxienez etxebizitza eskatzailearen bat egotea etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan inskribaturik.

BERMEAK (Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.-k jabeari ematen dizkionak)

- Errenta kobratzea erabakitako egunean.
- Kontratua bukatzen denean etxebizitza egoera onean itzultzea.
- Etxebizitzaren arrisku anitzetarako aseguria (Edukiztailea), Nasuvinsaren kontura.

BESTELAKO ONURAK

- NASUVINSAk jabeari komunitate-gastuak ordainduko dizkio, gehienez ere 50€ hilean.
- Efizientzia energetikoaren ziurtagiria: tramitazioa eta kostua NASUVINSAREN kargu.
- Etxebizitza egokitzeko behar diren gastuen finantzaketa, %0an eta 12.000 eurora arte.

BETEBEHARRAK

- ✓ Okupatu gabeko etxebizitza LIBREA izatea, edo BABESTUA, okupatu gabe izateko administrazio baimena baldin badu.
- ✓ Indarrean dagoen bizigarritasun zedula izatea, edo behin betiko kalifikazioaren zedula.
- ✓ Onartzen diren etxebizitzek hornidura zerbitzuak alta emanda izan behar dituzte, indarra duten araudien arabera (ura,
- ✓ Sukaldeak eskatzen den gutxieneko ekipamendua izan behar du. Gainerako altzariei dagokienez, jabeak etxebizitzan utzi nahi baditu, bere gain hartu beharko du erantzukizuna. Ahal dela, etxebizitzek igogailua izanen dute.
- ✓ Jabeak bere gain hartu beharko du hondakinen tasa, NASUVINSAk etxebizitza alokatu arte.
- ✓ Kontribuzioa (OHZ): jabeak ordaintzekoa.
- ✓ Eskatzen diren instalazioen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira (gasa, iturgintza-lanak, etab.).
- ✓ Etxebizitza horretako errolda guztiak deuseztatzea.
- ✓ Erkidegoko aseguria izatea.

BALDINTZAK

- Etxebizitza 5 urte eta 6 hilabeterako lagatzeko kontratua.
- Lehentasunez pertsona fisikoen jabetzako etxebizitzak alokatuko dira. 3 jabe baino gehiago izanez gero, ordezkarri bat izendatu behar da.
- Alokairuen Poltsan pertsona juridikoen etxebizitzak sar daitezke kreditu hipotekario baten ordainean eskuratu badira edo salerosketa subrogazio hipotekarioaren bidez edo antzeko negozio juridiko baten bidez egin bada, eta, orobat, SAREBen eta edozein Administrazio Publikoren etxebizitzak.
- Salbuespenak salbuespen, ez dira onartuko familia bakarreko etxebizitzak, lau logelatik gorako etxebizitzak edo 110 m²-tik gorako azalera erabilgarria duten etxebizitzak.
- Gehienez ere azalera hauek ordainduko dira:

Etxebizitza	90 m ² erabilgarri
Garajea	plaza 1 besterik ez da onartuko
Trastelekua	m ² erabilgarriak
- Etxebizitza ezin bada lehenbiziko 3 hilabeteetan alokatu, jabeari itzuliko zaio.
- NASUVINSAk hilero errenta ordainduko dio jabeari, etxebizitzan interesa duen norbaitekin errentamendu kontratua sinatzen den unetik (irailaren 18ko 61/2013 FD, 77. art.).

PREZIOA: ETXEBIZITZAREN PREZIOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

UDALERRIAK	ETXEBIZITZA	GARAJEA	TRASTELEKUA
IRUÑERRIA, TUTERA, LIZARRA ETA TAFALLA	5 €/m ² erabilgarri	50 €	2 €/m ² erabilgarri
10.000 BIZTANLETIK BEHERAKO BESTE UDALERRI BATZUK	4 €/m ² erabilgarri	30 €	1 €/m ² erabilgarri
5.000 BIZTANLETIK BEHERAKO BESTE UDALERRI BATZUK	3 €/m ² erabilgarri	30 €	1 €/m ² erabilgarri

- HOUSING FIRST (etxegabeak) programan sar daitezkeen logela bateko etxebizitzengatik, 90 metro erabilgarrien pareko errenta ordainduko da. Ikus baldintzak.

- Pertsona juridikoen kasuan, adierazitako prezioa gehienekoa izanen da, baina txikiagoa ere izan daiteke etxebizitzaren kopuruaren eta egoeraren arabera.

GASTU KENGARRIAK

- Ondasun higiezinaren errentamenduaren zenbatekoaren etekin garbiaren %40ko murriztapena, Alokairuen Poltsaren bidez alokatutako etxebizitzaren kasuan.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25.2 artikulua.

- Kapital higiezinaren etekinen gastu kengarriak:

- PFEZren Erregelamenduko 12. artikulua.

- Kontserbazio edo konponketa gastuak. Ondasun materialen erabilera normala bermatzeko xedez aldian-aldian egin ohi direnak: pintatzea, zarpiatzea, instalazioak konpontzea... Baita elementuak aldatzea ere, berokuntzako instalazioetan, igogailuan, segurtasun ateetan edo gisakoetan.
- Administrazio eta atezaintza gastuak, edo gisa berekoak.
- Balizko maileguaren interesak, aseguruak eta higiezinaren erosketa kostuaren amortizazioa.